

Baionako patroina
deitzen da San Leon,
saindu haundiagorik
ez dut senti nehon.
Sainduen ohoratzen
behar gira egon,
sainduak on dire bainan
biba Napoleon!

Iparraldeko soldaduak: Biba! Biba Napoleon! Biba!

Hil bedi Bonaparte
gaizto zital hura,
zeren munduban eztan
iñor haren gura.
Lenbailen infernuban
sartu dedilla,
eta munduba pakian
geldi dedilla.

Hegoaldeko soldadu batek: Hil bedi Bonaparte!

Gainontzekoek: Hil bedi!!

EUSKARA JENDEA
Gure hizkuntzaren historia,
gure historiaren hizkuntza

GERREN ARTEKO PIZKUNDEAN

Iraultza Frantsesean Luis XVI.a erregeari gillotinan burua moztu ondoren, Espainiak gerra deklaratu zion Frantziari. Konbentzio Gerran, bi urtez, euskaldunak elkarri borroka egitera behartuak izan ziren.

Gerra hartako ondorioak muga aldeko herriek pairatu zituzten gehien.

Lapurdin, esaterako, gazte askok, frantses armadarentzat muga zaindu ordez, ihes egin zuten Hegoaldera.

Agintariak mugatarrei leporatu zieten desobedientzia eta, besteak beste, Sara, Itsasu, Azkaine, Ezpeleta eta Ainhoa herriak traidore izendatu zituzten.

Beren biztanleak Landetara eramanda eta, gaizkileak balira bezala, preso hartuta, herriok hutsik geratu ziren.

Konbentzio Gerraren kalteak herrietan oraindik begi bistakoak zirelarik, 1808. urtean Napoleon Bonaparteren armadak berriro hartu zuen mendean Euskal Herri osoa, Europa gehiena bezala, bestalde.

Hamaikagarrenez herritarrak aurrez-aurre, oraingoan Frantsestea izeneko gerran.

Historian doktorea eta Udako Euskal Unibertsitateko kidea den Jurgi Kintanak gogorarazi digunez, alde bateko eta besteko euskaldunen arteko harremanak osterara ere gaiztotu ziren.

Jurgi Kintana

Behin baioneta batez zaudenean, ez duzu pentsatzen «beste aldekoak beharbada nire anaiak dira, euskaldunak dira». Esango dizute «aurrera», eta zu aurrera zoaz. Orduan, besteak dira etsaiak, besteak dira gaiztoak. Hegoaldekoa bazara, besteak dira frantsesak, nahiz eta euskaraz egin. Iparraldekoa bazara, berriz, besteak dira espainolak eta garaitu ditzagun.

Bonapartek herrialdea menperatzen zuen garaian, frantses armadako Jean Pierre Mendiri garaztar ankerra izan zen Iruñeko polizia militarren buru.

Mendiriren izendatzea, baina, ez da kasualitatea.

Napoleonen armadak gizarte aski euskaldun batekin topo egin zuen Iruñean eta, oro har, Nafarroan.

Hala ere, zegoeneko, bertako egoera soziolinguistikoa aldatzen hasia zen.

Erdialdeko eskualdeetako euskaldunek pairatutako bazterketek eta debekuek erdararen zabalpena erraztu eta hizkuntza ordezkapena azkartu zuten.

Ordura arte, Iñaki Camino filologo eta Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslearen esanetan, Nafarroako administrazioak kontuan hartzen zuen eskualde ugarian euskaldun hutsak zirela.

Iñaki Camino

Funtzionalki bikoiztasun bat zegoen. Demagun, 1804an, Artaxoan bikote bat elkarrekin liskarretan dabilelako edo gatazka dutelako, bereiztea eskatu du. Nahi dute Iruñetik idazkaria edo notarioa ager dadin. Ohartzen dira hango jendeak (batzuk behintzat) euskaldun hutsak direla eta nahitaezkoa dela idazkari edo legegile euskalduna eramatea.

Elizarekin berdin gertatzen zen. Apaiz erdalduna bidaliz gero, kexuak izaten ziren berehalakoan.

Camino

Nafarroako Artxibategia josirik dago horrelako gatazkez eta auziez. Euskaraz mintzo den herri batera bidali dute apez edo idazkari erdalduna. Herriak ez du onesten eta euskaraz dakien norbait igor dezaten eskatzen du. Dirudienez, XIX. mende hasierarako bikoiztasun hori, administrazioan behintzat, ahultzen eta galtzen zihoan.

Erdal administrazioa, ondoko herriak erdaldundu izana, irakasle eta apaiz erdaldun edo erdalzaleak... Baldintza hauek arruntak izaten hasi ziren Nafarroako erdialdean, azken hiru mendeetan ez bezala.

Ondorioz, Arabaren antzera, orduantxe gertatu zen lurralde horretan euskararen atzerakadarik handiena.

Camino

Nafarroa izan zen XIX. mendean, batez ere frantsesen aurkako gerren ondotik, euskararen galera handia eta bizkorra jasan zuena. Hor ikusiko genuke, esate baterako, Iruñetik beheko aldera, Orbaibarren, Iruñea ondoko Arangurenen, Itzarbeibarren... eta ari naiz denbora guztian Bonaparteren garaiko mapa erakusten... Eremu haietan euskara galtzen ari zen.

Iñaki Camino, noski, ez da Napoleon Bonapartez ari, haren iloba zen Louis Lucien Bonapartez baizik.

Sortzez ingelesa, gurasoak aldi batez irlan gatibu egon baitziren, Bonaparte Printzeak, hil bitartean, bost bidaia egin zituen Euskal Herrira.

Bidaia hauetan euskararen mapa osatu zuen.

Euskararen lehen mapa frantses administrazioak egin bazuen ere mende hasieran, Bonapartek, bere mapan, hiztunen hedapena eta sendotasuna erakustez gain, euskalkiak zehaztu zituen.

Camino

Euskalkien lehen banaketa proposatu zuen Bonapartek. Bere ereduaren arabera mapa bat egin zuen erakutsiz zein ziren euskalkiak, non mintzo ziren eta noraino iristen ziren.

Informazioa biltzeko, laguntzaile talde zabala eratu zuen, bai eta ezkontzeko emazte euskalduna aurkitu ere: Clemence Richard atarraztarra.

Camino

Bonapartek harreman hertsia izan zituen Euskal Herriko jendearekin. Bruno Etxenike baliatu zuen, adibidez, Nafarroan eta Araban euskal datuak biltzeko; edo Uriarte Bizkaian; Claudio Otaegi, Gipuzkoan; Intxauspe, Zuberoan Duvoisin, Lapurdin...

Louis Lucien Bonapartek erakutsitako interesa, eginarazitako liburu ugariak eta burututako lan oparoak pizgarri suertatu ziren gizartean.

Camino

Eskaldunak, Frantziaren eta Espainiaren bitartean kokaturik zeuden herri ttipi bat ziren. Estatu haien indarra jasaten zuten. Alde horretatik, Bonapartek halako harrotasun bat hedarazi zuen euskaldunen artean beren izaera, nortasun eta hizkuntzagatik.

Bonaparte Printzeak baino lehenago, dena den, beste ikertzaile atzerritar batzuek ere eraman zuten euskara maila zientifikora.

Izena eta lekua aitortu zizkieten hizkuntzari Europan eta Euskal Herrian, bertoko kultura gehiago baloratuz.

Aitzindari hauen artean Wilhelm von Humboldt dugu.

Humboldtek hertsiki lotu zituen Europako historia eta euskara.

Lourdes Otaegi Euskal Herriko Unibertsitateko Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saileko irakasleak dioenez, hura izan zen euskara ikerketagai gisa Europan seriozki plazaratu zuen lehen filologoa.

Lourdes Otaegi

Batetik, hark zabaldu zuen Europan ‘*vasco-iberismo*-aren’ teoria. Bestetik, euskararen antzinatasunaren eta interes filologiko handiaren berria. Haren liburuak, ‘*Prüfung...*’ izeneko liburuak, hastapenak ezarri zituen euskararen inguruko ikasketa filologikoetan. Eta haren ondotik beste ikasketa asko etorri ziren XIX. mendean.

Humboldt azkar ohartu zen euskara bide egokia izan zitekeela Europako historia ezezaguna aztertzeko.

Ez zuen dudarik kontinenteko hizkuntzarik zaharrena zela, bai eta kontinente osoan zabalduarik egon zela garai batean ere.

Baina Humboldten lehen helburua Euskal Herrira etortzean ez zen mintzaira aztertzea, ahozko herri literatura ezagutzea baizik.

Izan ere, XIX. mendean, tokian tokiko herri kultura biltzen eta baloratzen hasi ziren.

Otaegi

Bilakaera filologiko horrekin batera, Erromantizismoak kultura tradizionaletikiko interes handia erakutsi zuen. Hau da, hizkuntza gramatikaren aldetik deskribatu zitekeen baina hizkuntza horrek sortzen zuen literatura, sortzen zuen folklorea eta tradizioa jasotzeko ahalegin handi bat egin zen Euskal Herrian XIX. mendean. Eta horretan ere atzerritarrek lan handia egin zuten.

Besteak beste aipa litezke Charles Mahn alemaniarra, Jean François Cerquand eta Julien Vinson frantsesak, eta Saran luzaro bizi izan zen Wentworth Webster ingelesa.

Apaiz anglikano honen ‘*Basque Legends*’ liburua, kasu, Londresen argitaratu zen mende bukaeran.

Bestalde, ez dute garrantzi txikiagorik garai berean herri kultura papereratzten aritu ziren ikertzaile euskaldunek.

Agosti Xaho, Jean Salaberri, Jose Manterola edo Juan Inazio Iztuetak mende honetan plazaratu zituzten folkloreak eta ahozko literaturari buruzko liburuak.

.....

Frantsestea artean amaitu gabe zegoelarik, Espainiako lehen Konstituzioa idatzi zen Cadizen, Frantziakoa eredu hartuta.

Konstituzio honek Hego Euskal Herriko foruen edo lege propioen desagertzea zekarren eta, indarrean sartu ez bazen ere, zetorrenaren iragarpena zen.

Foruak mantentzea ala estatu osoarentzat lege berak izatea, Karlistadak deritzen gerren auziko parte handi bat izan zen.

Lehen Karlistada Bergarako Besarkadarekin bukatu zen.

Hitzarmen horretan foruak mantentzeko aholkua eman zitzaion Madrilgo Parlamentuari, baina libre utziz zer egin haiekin.

Kintana

Orduan, Foru Legea sortu zen 1839an esanez Foruak mantenduko zirela Espainiako Konstituzioaren barruan. Hura, praktikan, murrizketa batzuekin etorri zen. Gauza batzuetan mantendu ziren eta beste batzuetan, ordea, ez.

Istoria berrogei urte geroago errepikatu zen, Bigarren Gerra Karlistan. Oraingoan karlistak guztiz garaitu zituzten eta, ondorioz, berezko erakundeak eta legeak osoki indargabetuak izan ziren, hondarrezko eskumenak ziren kontzertu ekonomikoak salbu.

Herritar askok, hala ere, ez zuten aldaketa begi onez ikusi.

Kintana

Ordura arte euskal erakunde foraletan agintari zirenetako batzuek onartu egin zuten egoera berria eta ontzat eman zuten Kontzertu Ekonomikoaren erregimena. Ez zen hura, noski, haiek nahi zutena baina esango zuten: «Behintzat, zergak bildu ditzakegu eta diru horrekin gauza batzuk egin». Beste batzuek, ordea, ez zuten egoera berria onartu, hau da, foruzale intrantsigente deitutakoak. Haiek euskal nazioa aipatzen hasi ziren, independentzia.

Bigarren Karlistadaren ondoren, egoeraren gaineko kezak eta herri kulturaren inguruko jakin-minak euskaltzetasuna piztu zuten zenbait jenderengan.

Europa osora zabaldurik zegoen Erromantizismoaren giroan, Euskal Pizkundera deitutako mugimendua bideratu zuten.

Berpizte horretan erabakigarria izan zen aita zuberotarra zuen Antoine d'Abbadie irlandar filologoa.

Aitaren hizkuntzak erakarrita, Hendaiara bizitzen etorri eta bertan jauregia eraikiarazi zuen.

Camino

Antoine d'Abbadie Euskal Herrira etorri zenean, ikusiz modernitasuna eta euskara ez zihoazela eskutik, esan zuen nahitaezkoa zela modernitasunari heltzea euskarak iraun zezan. D'Abbadiek ulertzen zuen euskaraz mintzo zen eta euskaldun iraun behar zuen herri hark modernitasunari heldu behar ziola. Eta, horretarako, saiatu zen euskaldunen... euskaldunen izaera eta nortasuna berek goraltzea, babestea eta, neurri batean, harekin ase egotea.

Horretarako d'Abaddiek Lore Jokoak sortu zituen.

Lore Jokoetan sariketak ziren funtsezko osagaia: pilota-partidak, dantza-saioak, musika-emanaldiak eta, tartean, literaturan eragin handia izan zuten manifestazio bi: poesia-lehiaketak eta bertso-saioak.

Otaegi

Bi fazeta haiek garapena izan zuten urteroko sariketei esker. Batetik, sariketara aurkezten zirenek produkzio bat ekarri zutelako euskal literaturarako; eta, bestetik, beren buruaren estimazio bat eman zielako. Hau da, sarituei nahiz saritu gabeei hizkuntza baten eta kultura baten kontzientzia bat eman zien.

Camino

D'Abbadie euskal harrotasun bat haizatzen saiatu zen. Ohartu zen XIX. mendean, handikiak-eta ohartu ziren, galera eteteko nahitaezkoa zela euskaldunen harrotasuna antolatzen hastea. Baina hasierako antolaketa hura ez zen ez administratiboa ez politikoa izan, etnizismoan oinarritua izan zen gehiago: hizkuntza, ohiturak, sinesmenak... Han zebiltzan, pixka bat, euskaltasunaren indarrak XIX mendearen erdialdean.

Lore Jokoetan Iparraldeko eta Hegoaldeko euskaldunek parte har zezaketen.

Hori garrantzitsua izanik ere, are garrantzitsuagoa izan zen mugaren alde bietan txandaka antolatzen hastea.

Otaegi

Lore Jokoak Ipar Euskal Herrian egiten zirenean, Hegoaldeko bertsolariak ere joaten ziren. Hegoaldeko idazleak han hasi ziren beren testuak aurkezten. Hegoaldeko lehen Lore Jokoak antolatu zirenean Elizondon 1879an, han ere egon ziren Iparraldekoak. Orduan, bazegoen joan-etorriko harreman bat, lehenengo Iparraldetik Hegoalderakoa zena eta gero Hegoaldetik Iparralderakoa zena.

Hor '*Zazpiak Bat*' espiritua hasi zen garatzen.

Herri kultura biltzeak, hizkuntzari buruzko ikerketek eta Lore Jokoen giroak, karlistaden nahitaezko eraginarekin batera, euskal batasunaren ideia eta kontzientzia garatzen lagundu zuten.

Aurreko mendean Euskal Herriaren Adiskideak elkarteak *'Irurak Bat'* goiburua sortua zuen Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako elkarlana bultzatzeko. Geroago, Gerra Karlistetan, leloa *'Laurak Bat'* izatera pasatu zen Nafarroa gehitzean.

Kintana

'Zazpiak Bat' Iparraldekoen eskutik etorri zen. Iparraldeko batzuek entzun zuten *'Laurak Bat'* hura eta ikusi zuten beraiek ez zeudela sartuta. Orduan Iparraldeko probintziak erantsi zizkioten. Batez ere Antoine d'Abbadieren Lore Jokoetan-eta bertsolariak eta koblakariak bultzatu zuten *'Zazpiak Bat'* leloa. 1893an dokumentatuta dago lehen aldiz Adema Zaldubiren bertso batean.

.....

'Zazpiak Bat' gorpuzten ari zen urteetan, Bigarren Industria Iraultzak inoiz ikusi gabeko berrikuntza teknologiko, zientifiko, sozial eta ekonomikoak ekarri zituen.

Euskal Herrian, industriaren sorrera eta garapena Bizkaian gertatu zen lehenik, eta geroxeago, eta modu apalagoan, Gipuzkoan.

Horrek etorkinak erakarri zituen. Bizkaian, esate baterako, biztanleria ia bikoiztu egin zen berrogei urtean.

Etorkin gehienak erdaldunak izaki, inmigrazioa hizkuntza komunitatea desorekatzeko faktore bilakatu zen.

Kintana

Euskal Herrira etorritako inmigrazioa, batez ere Bizkaian bildutakoa, oso migrazioa masiboa izan zen. Bilbo aldean bildu zen (Bilbon, Barakaldon, Sestaon...), ibar-ekialde osoan, eta Bizkaiko populazioa berehala bikoiztea egin zuen. Orduan, euskaldunak gehiengo izatetik Bizkaian kopuruz... euskaldun kopurua ez zen galdu, baina proportzioz bai, behera egin zuen.

Hala ere, kanpo-migrazioarekin batera, barne-migrazioa ere izan zen aldi berean.

Kintana

Beti pentsatzen da Bilbora etorritako langileak Gaztelatik-eta etorri zirela. Baina Bizkaitik, Gipuzkoatik eta beste euskal probintzietatik ere heltzen ziren langile euskaldunak. Orduan, nahiz eta gutxiengo bat izan, haiek ere elikatzen zuten Bilboko populazio euskalduna elikatu zuten. Hor zenbatu behar dira fabriketara lanean zihoazenak eta, baita ere, neskame moduan etortzen ziren baserritarren alabak-eta. Badago 1920ko errolda bat erakusten duena garai hartan Bilbon populazioaren %20 euskalduna zela.

Etorkinak ez ezik, herria utzi zutenak ere andana izan ziren, batez ere Lapurdin, Baxenafarroan eta Zuberoan.

Mende hasierako gerrek eta, Frantses Iraultzaren ondorioz, legedi propioaren galtzeak eta ezarritako zazpi urteko soldaduskak eraginda, Ipar Euskal Herriko makina bat gaztek alde egin zuten beren herrietatik.

Asko Ipar Amerikara abiatu ziren. Han bizimodu berriari ekin eta komunitateak egituratu zituzten.

Emigratzaile haien eta beren ondorengoen peskizan ibili da luzaro William Douglass poliedro amerikanoa.

Antropologo, euskaltzain ohorezko, hainbat kasinoren jabe eta, ororen gainetik, Nevada-Renoko Unibertsitateko Euskal Ikasketen Zentroaren bultzatzaile nagusia.

'*Mr Basque*' deitua, Bill Douglasssek ondo baino hobeto ezagutzen ditu Amerikako euskal komunitatearen puzzlea osatzen joan diren piezak, 1893an sortutako '*Californiako Eskual Herria*' astekaria kasu.

Bill Douglass

Ez dakigu zehazki noraino zabaltzen zen egunkaria. Argi dago Kaliforniako hegoaldean argitaratzen zela. Ipar Euskal Herriko euskaldun batek ateratzen zuen nagusiki bertako euskalki batean. Irakurle gehienak, noski, Kaliforniako hegoaldekoak ziren.

Douglass

Oso ale-kopuru gutxi kaleratzen omen zuen. Euskal komunitatea trinkotzeko gaitasunak, bada, mugatua behar zuen, agian zer edo zer Los Angeles inguruan eta San Fraciscon. Badirudi hiri horretan hainbat harpidedun izan zituela Iparraldeko euskaldunen artean, baina ez dut uste Boiseran, Idahora, hedatuko zenik.

Douglass

Saso hartan, Estatu Batuetako mendebaldean euskal komunitatea artzaintzaren inguruan zegoen egituratuta. Noski, salbuespenak ere baziren: meatzaritzan eta beste lan batzuetan, baina artzaintza zen garaiko euskaldunen oinarrizko jarduera.

Douglass

Euskaldun batzuek hotelak ireki zituzten. Artzain ohiek eta, seguraski, euren emazteek kudeatzen zituzten. Emakumeok, askotan, Amerikako euskaldunak ziren. Hotelek jende ibiltaria eta lanean ez zebiltzan artzainak aterpetzen zituzten.

Douglass

Tamalez, Estatu Batuetako mendebaldean galdu egin dira etorkinen hizkuntza gehienak. XX. mendeko lehen hamarkadetan, bereziki, presio izugarria izan zen edozein etorkin taldek bere hizkuntzan hitz egiteari utzi eta ingelesa bereganatzeko; Estatu Batuetako kulturak eragindako presio sozial izugarria.

Douglass

Hein batean, ardi-industriak bizirauten lagundu zion euskarari. Izan ere, barru-lautadetan eta mendietan, isolamendua ekarri zion. Ez ingelesak ez kultura ingelesak ez zioten zuzen eragiten.

Douglass

Euskara, euskaldunek elkarren artean erabiltzen zuten kode pribatu baten modukoa zen, nagusiki familia giroan erabil zitekeen kodea. Kasik ez zuen dimentsio publikorik.

Douglass

Gure ikerketei ekin genienean, aldea zegoen Idahoko hegoaldeko nahiz Nevadako iparraldeko euskaldunen eta Estatu Batuetako mendebaldeko gainerako euskaldunen artean. Lehenak Bizkaikoak ziren, batez ere; bigarrenak, Nafarroakoak eta Ipar Euskal Herrikoak gehienbat. Euskalkien arteko aldea nabarmena izaki, neurri batean komunikazio arazoak izaten ziren euren artean.

Douglass

Kanpamentu batzuetan, sarri aukera izaten zen hainbat tokitako ardi-aziendak erosteko. Erosleak berea ez zen euskara entzuten zuelarik, euskalkien arteko aldeei erreparatzen zien eta, ondorioz, egokitu egiten zen. Hau da, gutxi gorabehera garai hartan, batua sortu aurretik, Euskal Herrian gertatzen zen modu berean. Amerikan ez da sekula izan euskara bateratu bat sortzeko moduko masa kritikorik.

Estatu Batuetako komunitatean ez bezala, hizkuntza bateratuaren beharra kezka eta buruhauste bihurtzen hasita zegoen Euskal Herriko idazle eta euskalarien artean, bereziki aldizkariak martxan jarri nahi zituztenen artean.

Lehen ahalegina '*Uskal-Herrico Gaset*a' izan zen. 1848an Agosti Xaho idazle eta pentsalariak plazaratua Baionan, bi ale bakarrik kaleratu ziren.

Handik hamarkada batzuetara, Bigarren Industria Iraultzan, munduan prentsa masa-fenomeno bilakatu zen, bereziki inprimatzeko sistema berriak asmatu zituztenez geroztik.

Giro eta garai horretantxe sortu ziren, beste askorekin batera, euskarazko lehen aldizkariak.

Jendartean eragiteaz gain, aldizkariak komunitatearen interesak zaintzeko eta barne lotura atxikitzeko helburua zuten.

Asmo horrekin fundatu zuten, Baionan ere mende bukaeran, '*Eskualduna*', lehen astekari iraunkorra.

Lapurdiko, Baxenafarroako eta Zuberoako kazeta honek gai ugari jorratzen zituen: nekazaritza, osasuna, merkaturia, heziketa, berriak, erlijioa...

Camino

Guk irakurtzen badugu '*Eskualduna*-n' Hiriart-Urrutiren editoriala, Txinan-eta gertatzen ari diren kontuez ari da, baserritarren eta nekazarien eguneroko gaiez jarduten ari da, bere iritzia ematen ari da.... Euskaltasun hura Elizarekin eta erlijionearekin loturik zegoen. '*Eskualduna*-k' xurien Ipar Euskal Herri batean funtzionatzen zuen. Alde horretatik, tradizioko gizarte bateko erakusgarri leiala zen.

Aldizkariaren ildo literarioa eta estilistikoa zinez landua izan zen. Jean Pierre Duvoisin idazle lapurtarrak hizkuntza estilo modernoa ezarri zuen.

Camino

Hiriart-Urrutik indarrez bultzaturiko 'Eskualduna-k' Duvoisin hartu zuen bere estilo zainketa egiteko. Orduan, zein da Duvoisinen edo Hiriart-Urrutiren ezaugarria hizkuntzaren aldetik? Ez zeudela batere ados erdararen menpe zegoen euskara batekin. Orduan, Duvoisinek eta Hiriart-Urrutik estilistika bat guztiz euskarazkoa sortu zuten, neurri handi batean baserri giroko euskarari atxikia zena, baina erdararen erasoan menpe zegoena. Zeren garai hartan ohartuak ziren Ipar Euskal Herriko jendea jada ez zela lehen bezala mintzatzen euskaraz.

'Eskualduna-ren' salmentek gora egin zuten hasieratik: sorrera urtean ez zen mila alera iristen; urte batzuk geroago, berriz, 7.000 saltzen zituen.

Bigarren Mundu Gerran, aldiz, Pétain mariskal alemanzalearen alde agertu izanak akabera ekarri zion 1944. urtean, gobernu berriaren aginduz.

Lehenago, baina, beste bi kazeta garrantzitsu plazaratu ziren Hegoaldean. 'Argia' asterokoa 1921ean eta, 36ko Gerran Eusko Jaurlaritzaren ekimenez, 'Eguna', lehen egunkaria.

Jakina, militar frankistek biak itxiarazi zituzten.

.....

XIX. mendearen amaieran trenbidea eraikitzen etorri ziren Alpeetako pikatzaileek trikitixa ekarri zuten, '*infernuko hauspoa*'.

Trikiti-trikiti, burdinbide hartan barrena Norteko Ferrokarrila ibili zen.

Industrializazioa bete-betean zegoelarik, hamaika gertaera kateatu ziren tren hartako bagoiak balira bezala: foruen galera, emigrazioa, euskararen desorekaren larriagotzea, politika zentralistak, kultura arloan zabalduko batasunaren ideiak...

Ordurako, sozialismoak eta abertzaletasunak bazuten leku bat jendartean, batez ere Bizkaian eta Gipuzkoan.

Abertzaletasunean, Sabino Arana politikari bizkaitarra izan zen sustatzaile nagusia.

Kintana

'Zazpiak Bat' leloa atera zenean Lore Jokoetan, «*euskaldun guztiok bat egin dezagun*» eta horrelako leloak, berez ez zeukaten esanahi politiko oso konkreturik. Aldarrikapen sentimentalak ziren, literarioak, gogoak, ametsak... baina ez zeukaten gauzaren politiko konkreturik. Neurri batean foruzaleak izaten ziren baina argi definitu gabe zein proiektu bultzatzen zuten. Eta, orduan, pausoa eman zuena Sabino Arana izan zen.

Otaegi

Hor ez dago zalantzarik diferentzia kualitatiboa egon zela Sabino Aranak partido bat sortu zuenean eta esan zuenean «euskaldunon aberria Euskadi da».

Abertzaletasunak hizkuntzari begiratzeko modu berria ekarri zuen, garbi utziz hiztun-komunitateak egitura politikoak behar zituela bere burua defenditzeko.

XX. mendearen lehen erdian nagusitu ziren garbizaletasun-ereduak gorabehera, Arana, bereziki, hizkuntzaren statusarekin zegoen arduraturik. Alegia, euskarak mende askotan bereak izan zituen eguneroko bizitzaren esparruei eutsi eta erdararen funtzioak eskuratzearekin.

Camino

Sabino Aranak, batetik, corpusari dagokionez, erdal hitzak kendu nahi zituen euskaratik: ‘gentza’ (bake), ‘bultzia’ (tren), ‘gotutsa’ (aingeru), ‘lagi’ (lege) eta horrelako hitz berriak edo egokitzeak egin zituen. Baina, aldi berean, Arana ohartu zen estatus kontu bat zegoela han. Orduan, Iruñeko Aranzadirekin batera konturatu zen corpusa egokitzea, Duvosinek eta ‘*Eskualduna*-k’ egiten zutena... ez zela aski. Estatus aldetik beste egoera bat eman behar zitzaion euskarari. Eta egoera hartarako politikan ikusten zuen hark indarra. Aldiz, beste batzuek, Azkuek kasu, batez ere kulturatik bultzatu zuten beren ikuspegia.

Orduko sozialista espainiarrentzat, berriz, ‘*La Lucha de clases*’ izeneko aldizkarian hainbatetan azaldu zutenez, euskarak ez zuen tokirik gizartean.

Pentsatzeko modu hau, noski, dualismo bati zegoen loturik:

Mendez aldatzerakoan, modernoa, beharrezkoa eta hirikoa erdara zen; zaharra, arbuigarria eta herrikoa, aldiz, euskara.

Camino

Garai hartan, xx. mendearen hasieran, Euskal Herri gehiena euskalduna zen. Hau da, Baxenafarroan, Gipuzkoan... jendea euskalduna zen. Baina bazegoen batez ere karrikan, hirietan, elite bat erdaraz zekiena. Alde horretatik, arazoa estatus aldekoa zen. Bazegoen halako prejuizio bat euskararen aurka zihoana eta prestigio bat erdararen alde zihoana. Hura Baionan, Gasteizen, Iruñean gertatzen zen.

Dena den, hirietan zeuden mintzaira gaurkotzeko eta normalizatzeko ideiak eta ekimenak.

Camino

Lehen hazia Iruñean egon zen. Kanpion eta ‘*Asociación Euskara de Navarra*’ delakoan, Iturralde Suit, Serafin Olabe eta jende batzuk kezkatuak zeuden zer gertatuko ote zen, hizkuntza bera nora iritsiko ote zen, zein atarramentu zegokion hizkuntza horri. Eta haren gauzatze politiko nabarmena Bilbon gertatu zen.

Otaegi

Nik uste dut ukaezina dela han zeudela Urkijo, Azkue eta Aranzadi bezalako euskaltzaleak. Eta, benetan, beraiek eman zizkioten erakundeak euskarari.

Lehenak, Eskualtzaleen Biltzarra eta Euskal Esnalea elkarteak, XX. mendearen hasieran heldu ziren, lehen aldiz zazpi herrialdeetako hainbat euskaltzalek, Hendaian eta Hondarribian bilduta, ortografia sistema bateratua adosteko saioan porrot egin eta gero.

Hala ere, euskarak eta kulturak behar zituzten erakundeak 1918. urtean etorri ziren.

Oñatin antolatutako euskal ikasketen kongresuan, Eusko Ikaskuntza abian jarri zuten Nafarroa, Gipuzkoa, Araba eta Bizkaiko Foru Aldundiek.

Ikertzaileek egiten zuten lanari jarraipena emateko asmoz, Eusko Ikaskuntzak mota guztietako ikerketak bultzatu zituen, kongresuak antolatu, atzerrian ordezkartzak ireki, bai eta argitalpenak kaleratu ere, tartean RIEV, urte batzuk lehenago Julio Urkijok sorturiko eta mundu mailan sona handia lortutako *'Eusko Ikerkuntzen Nazioarteko Aldizkaria'*.

Otaegi

Amets nagusi bezala izan zuen Errepublikako urteetan bereziki Euskal Unibertsitatea sortzea. Irakaskuntza izan zen bere ametsa eta helburua, bai eta euskara kulturgintzan aitzinarazteko erakundeak sortzea ere.

Amets haietako batek amets izateari utzi zion berehala, aspaldiko nahia zen euskararen akademia eratzea erabakitzean.

Euskaltzaindiak hainbat zeregin agertu zituen hasieratik:

Camino

Batetik, hizkuntza zaintzea. Eta hizkuntza zaintzea irizpide batzuekin. Hau da, Sabino Aranek lexikoa garbitzeko eta erdal eraginetik garbitzeko zuen eredu hura, Azkuek-eta ez zuten naturala ikusten. Euskaltzaindia horretan ere saiatu zen, baina bazegoen beste eginkizun bat akademiarentzat: euskara batuaren sorrera.

Izan ere, ordurako, idazleek aldarrikatua zuten euskara idatziaren normalizazioa.

Camino

Bazegoen idazleen mugimendu bat eskatzen zuena hizkuntzarentzat trataera berezi bat eta liburuak argitaratu ahal izateko eredu bat izatea. Horretarako Euskaltzaindia gertu zegoen eta horretarako sortu zen akademia.

Euskararen batasun linguistikoa, baina, ez zen une hartan gauzatu.

Artean hamarkada batzuk itxaron beharko zuen abian jarri baino lehen.

.....

XX. mendearen hasieran Ipar Euskal Herriak Frantzia zentralistaren zama astuna pairatzen jarraitzen zuen.

Frantses hutseko eskola laikoa ezartzeak, adibidez, kexa ugari eragin zituen, baina Lehen Mundu Gerra hastearekin batera isildu egin ziren protestak:

Milaka herritarrek, frantziar estatuko hiritar izanik, zuzenki parte hartu behar izan zuten gudan.

Ondorioz, euskaraz baizik ez zekiten haietako askok bizitza galdu zuten; ugari elbarriturik gelditu ziren betiko; eta andana batek muga iragan zuen borrokei ihesi.

Izugarrizko triskantza populazio txiki hartan.

Gerrak, bestalde, marka sakona utzi zuen pentsaera kolektiboan.

Kintana

Mundu guztiak senide bat galdu duenean, lagun bat, edo herriko kide bat... Edo trintxeretan egon eta gauza izugarriak ikusi dituenen... Gerta liteke gerrarekiko izugarrizko gorrotoa garatzea, eta batzuek garatu zuten; edo beste batzuek sinistu egiten dute: «Gerra beharrezkoa izan da, bizitza arriskuan jarri dut, ez dut besoa edo laguna galdu alferrik. Frantziagatik eman dut bizia, Frantzia nire aberria delako». Iparraldeko askok barneratu zuten mezu hura eta hortxe indartu zen frantses nazionalismoa.

Hegoaldeak, berriz, Bigarren Pizkundea bizi zuen bien bitartean.

Horretan zerikusi handia izan zuen Euskaltzaleak elkarteak, Jose Maria Agirre 'Lizardi' olerkariaren eta Jose Ariztimuño 'Aitzol' apaizaren bultzadapean sortua 1926an.

Otaegi

Euskaltzaleak erakundearen asmoa ez zen euskararen promozioan sustapen jarduerak egitea besterik. Hau da, beraiena ez zen ikerleen edo gramatikariaren lanetan sartzea. Gizartean eragin nahi zuten, euskaltzaletasuna hedatu nahi zuten, baina herri maila guztietan, eta horretarako halako gertaldi edo aktibitate herrikoiak antolatu zituzten.

Luze gabe, Aitzol euskaltzale talde horren dinamizatzaile nagusia bilakatu zen.

Diru-bideak bilatzeaz gainera, Aitzolek, behar zituen plataformak antolatu zizkion: olerki-lehiaketak, bertsolari-guduak, antzerki-egunak, 'Yakintza' aldizkaria edo 'El Dia' egunkaria.

Otaegi

Esango genuke garai horretan hizkuntza minorizatuen egoeraz eta errekupeazio prozesuez egunean-egunean jarrita zegoen pertsona bat zela. Belgikako hizkuntz-errekupeazioa, Finlandiakoa, eta abar oso gertutik ezagutzen zituen. Liburuak idatzi zituen haien berri hedatzeko.

Euskarazko hezkuntza babestea eta hedatzea ere izan zen Euskaltzaleak elkartearen helburu nagusietako bat.

1914an, herri-ekimenari esker, lehen ikastola ireki zen Donostian.

Berehala, euskal eskolak Hegoalde guztian barna zabaltzen hasi ziren, 36ko Gerrak ixtea ekarri zuen arte.

Otaegi

Nik neronek, esaterako, aipa dezaket Tolosako ikastolaren sorrera. Kontatzen du Lizardik artikulu batean, goitik beheraino luze, hasi zela irakasle bakarrarekin eta hogeitahaur baino gutxiagorekin, baina bi urtetan ehun eduki zituela. Beraz, hazkunde esponentziala izan zela esan dezakegu. Ikastolak hazi egin ziren. Hiriburuetan zein herrietan egon ziren 1936ra arte.

Elkartearen kideek, haietako asko idazleak izanik, ikastoletarako testuak prestatzen ere jardun zuten.

Otaegi

Lizardik berak zuzendu zituen aritmetika liburuko euskarazko bertsioa, *'Lutelestia'* edo geografiakoak, *'Xabierto'* irakurgaien liburua. Beraz, 1931-32an eskoletarako materiala sortzen eta garatzen ari ziren gogo osoz.

.....

Euskaltzaleak, bestalde, arreta berezia eskaini zion literatur sistemaren sendotzeari. Ordurako, Lizardi, Lauaxeta, Tene Mujika, Orixe edo Julene Azpeitia idazleak nabarmentzen hasiak ziren.

Genero guztien artean, poesia lehenetsi zuten bere funtzio sozial eta politikoaatik.

Izan ere, Aitzol sinetsirik zegoen hura tresna egokiena zela lozorroan zegoen herria esnarazteko.

Baina, horretaz gain, olerkariak literarioki ere utzi zuten arrastoa.

Moldeetan eta gaietan Lore Jokoen ondoko poesiaren tradizioarekin apurtu zuten, eta lirikak urrezko aro bat bizi izan zuen.

Otaegi

Olerkariak etortzean erabat hautsi zuten harekin. Eta hain juxtu ere beren formatan, beren gaietan hautsi zuten tradizio harekin. Formatan arau metriko zorrotz batzuetara mugatzen ziren, ahapaldien berrikuntzeari ekiten zioten, errimaren aberasteari ekiten zioten eta, batez ere, gaietan Pizkundearen gai jakin batzuetan zentratzen ziren espiritu berri batekin.

Hogeiko eta hogeita hamarreko hamarkadetan kristaldutakoa hamaika puska egin zen 1936. urtean, bat-batean.

Espainiako militarrek estatu-kolpea jo ondoren, gerra berehala lehertu zen Hego Euskal Herrian.

Urtebete eskas iraun bazuen ere, ondorio ezin latzagoak izan zituen herritarren artean.

Nafarroan ez zen gudu frontierik izan eta, hala ere, hiru milatik gora hildako izan ziren, militarrek eta banda faxistek fusilatuak.

Bizkaia eta Gipuzkoa, aldiz, aski bortizki kolpaturik izan ziren, bertan militar faxistek gerra taktika berriak gauzatu zituztelako; nabarmenena, jende zibilaren bonbardaketak, Gernikaren suntsiketa lekuko.

.....

Hondamendia kulturara eta hizkuntzara ere zabaldu zen.

Gerrak euskaltzale eta kulturgile askoren heriotza, erbesteratzea eta bortxazko isiltasuna ekarri zuen.

‘Galerna’ itsasontzian Bilbora itzultzen zelarik harrapatu ondoren, frankistek Aitzol bera asasinatu zuten Hernaniko hilerriko hormaren kontra. Eta harekin batera, beste berrehun lagun inguru.

Kintana

Euskaltzale asko, abertzale asko exiliatu egin ziren. Barandiaranek alde egin zuen, adibidez. Beste batzuk fusilatu egin zituzten, Aitzol eta Lauaxeta kasu. Eta geratu zirenak ere barne isiltasun bat edo barne exilio bat jasan behar izan zuten. Haustura handia gertatu zen gerra aurrearen eta ostearen artean.

Otaegi

Sei urteko ibilbide nahiko emankorra izan zen. Eta gure lirikaren gailurra zen hartatik, 1936an beste haustura bat etorri zen, iluna bera. Alegia, gerrak talde haren sakabanatzea eta batzuen heriotza ekarri zuen. Mugimenduaren bukaera izan zen ~~bat-batean~~.

.....

1937an, gerra betean, euskaldunei lehen debekuak ezarri zizkieten Franco buru zuten militarrek.

Aginduz, xedapenez eta, geroago, legez euskara erabiltzea galarazi zuten.

Kalean; elizan; eskritura publikoetan; aldizkarietan eta enpresetako barne-dokumentuetan; hoteletan, haurren izenetan, zinemetan... Debekuak arloz-arlo zehaztu zituzten, dudarik izan ez zedin.

Garai beretsuan ere, II. Mundu Gerran, jasan zuen Ipar Euskal Herriak Alemania naziaren lau urteko okupazioa.

Une batez, geure buruari galdetzen diogu zer gertatuko zatekeen gerrarik izan ez balitz, zer gertatuko zatekeen hizkuntzaren transmisioan, zer irakaskuntzan, zer kulturaren...

Menturaz, kezka bera ibili zuen gerra hasieran Fermin Irigaray ‘*Larreko*’ idazleak.

Larrekok Iruñean bizitu zuen eten samingarria, bertako ospitaleko zuzendaria zelarik.

Etsiak hartuta eta euskaraz argitaratu ezinik, ezkutuan idazteari ekin zion. ‘*Gerla urte, gezur urte*’ egunkari pertsonalera bildu zituen bere pentsamendu, duda, itxaropen eta minak:

«Azken mendean euskarak etsai asko baldin bazituen, oraiko aldi untan, ordukoaren aldean, milla aldiz geiago eta gaizkotuagoak.

Bearrik mugaz arainditik etorriko zaikula euskararen azia, baldin lur onik gelditzen bada ereiteko.

Ezin euskaraz idatzi, ezin eskutitz bat egin, ezin telefonoz itzegin.

Noiz artio ala?».